

UDAL TURISMO INFORMAZIO PUNTUAN ARITZEKO ETA BAZTANGO TURISMO ESKEINTZA GARATZEKO BAZTANGO UDALAK TURISMO ARLOAN TEKNIKARI KONTRATATUKO DU (4 hilabeterako, C maila), AUKERAKETA PROZESUA HONAKO HAU IZANGO DELARIK:

BETEBEHARREKOAK:

- 2. Mailako Lanbide Heziketa, batxilergo titulua edo baliokidea.
- B1 mailako gida baimena.
- Adinez nagusia izatea.
- Euskara ezagutza (C1/EGA).
- NEZ-an lan eskatzaile gisa egotea (Bakarrik onartuko dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eginiko aurretiko hautaketan agertzen diren hautagaiak).
- Joan den urtean, antzeko deialdi baten baitan, Baztango Udalean lanean hiru hilabetetik gora aritutako pertsonak ezingo dute hautaketa prozesu honetan parte hartu. (251/2018 EBAZPENA, martxoaren 7koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, interes orokorreko edo sozialeko obra eta Zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituen).

KURRIKULUMAREN BAREMAZIOA (GEHIENEZ ERE 20 Puntu)

1.- FORMAKUNTZA (Gehienez ere 8 Puntu):

- Hostalaritza eta Turismo arloko Goi mailako lanbide heziketa titulua edota Turismo arloko Gradua (lehenagoko diplomatura titulua): 3 puntu.
- Lanpostuarekin lotutako 50 ordu baino gehiagoko ikastaro bakoitzeko puntu bat, administrazio publikoek antolatutakoak edota babestutakoak.
- Atzerriko hizkuntza ezagutza egiaztatuko duen ziurtagiri bakoitzeko puntu bat (gutienez B2 mailakoa)

2.- LAN ESPERIENTZIA (Gehienez ere 12 Puntu):

- Administrazio publikoetan turismo arloan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko: 2 puntu (gehienez ere 8 puntu).
- Entitate pribatu batean turismo informazio eta kudeaketa alorretan lanaldi osoan aritzeagatik, urte bakoitzeko puntu bat (gehienez ere 4 puntu).
- Egiaztatutako esperientzia baloratzean, urte edo lanaldi osoa egiten ez duen aldiari proportzioan dagokiona emanen zaio.

3.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango Udaleko erregistroan aurkeztuko dira (beharrezkoa da alde aurretik hitzordua eskatzea). Izangaiek kurrikuluma eta eskatutako tituluen egiaztatutako originalak aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera, bai eta lehiaketan ballarazi nahi dituzten merezimendu guztienak ere. **Epea: 2020ko ekainaren 30a, 14:00ak arte.** Eskatera erregistro elektronikoaren bidez ere egin daiteke.
- Lan esperientzia egiaztatzeke bizi laboralaren fotokopia edota enpresa ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- **EUSKARA:** titulua edo baliokidea aurkezten ez duten hautagaiak maila zehazteke azterketa bidez kreditatu beharko dute. **Euskara probaren eguna 2020ko uztailaren 03a.**

EZAGUTZA TEKNIKOA EGIAZTATZEKO PROBA (Gehinez ere. 80 Puntu)

- Non: Baztango Udala
- Eguna: **2020ko uztailaren 8a.**
- Ordua: 9:00ak.



- Arduraduna: Epaimahaia.
- Edukia:
 - Proba teorikoa. Baztango turismo eskeintza buruzko test moduko galderak (gehienez ere 30 puntu; guttienez 15 puntu eskatuko dira).
 - Proba praktikoa (gehienez ere 50 puntu; guttienez 25 puntu eskatuko dira). Hautagaiek Baztango turismo eskeintzaren inguruan kasu praktikoa bat garatu beharko dute (informazio eskaera bati erantzuna eman, turismo arloan proposamenak egin, e.a.)

EPAIMAHAIA:

Honako hauek izanen dira epaimahaikide:

-Mahaiburua: Baztango Udaleko alkatea.
Ordezkoa: Baztango Udaleko lehenengo alkateordea.

-Mahaikidea: Baztango Udaleko Turismo zinegotzia.
Ordezkoa: Baztango Udaleko zinegotzia.

-Mahaikidea: Baztan Udaleko langilegoaren ordezkari bat.
Ordezkoa: Baztan Udaleko langilegoaren ordezkari bat.

-Mahaikidea: Baztan Udaleko Garapen Agentea.
Ordezkoa: Garapen Agenteak erabakitzen duena.

-Idazkaria: Baztango Udalekoa edo legez haren ordezkaria dena.
Ordezkoa: Idazkariak erabakitzen duena.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

Udalak test teorikoa gainditzen duten pertsona guztien behin-betiko zerrenda erabiltzeko aukeraz baliatuko da beharrezkoak diren egoerei aurre egiteko (ohiko langilearen lan bajak, opor egunak, behar berezi edo bestelakoak).

INFORMAZIO GEHIAGO:

Marian Cestau. Tel. 948580561 / 606408613. baztan@cederna.es

